

LAN-BAIMENEN ARDURADUNA. 2020KO TESTA

35 galdera, eta beste 5 erreserbakoak

ERANTZUN ZUZENA: 1 PUNTU
ERANTZUN OKERRA: -1/3 PUNTU
DENBORA: ORDUBETE (60 minutu)

1.- Uraren Esparru Zuzentzarauaren helburuen artean ez dago hauetako bat. Zein da?

- a) Jabari publiko hidraulikoaren ibilgua mugatzea.
- b) Uholdeen ondorioak arintzen laguntzea.
- c) Uretako ekosistemen egoera babestea eta hobetzea.
- d) Lehorteen ondorioak arintzen laguntzea.

2.- Jabari publiko hidraulikoaren zortasun-eremuan jarraian zehaztutako jarduketetako bat bakarrik baimendu ahal izango du, oro har, URAK. Zein da?

- a) Oihanzaintzako prestakuntzarako eraikin publikoa.
- b) Ganaduentzako itxitura, igarotzea eragozteko eta ibaiertzeko landaredia ez kaltetzeko, ezinbestekoa baita uretako ekosistamarako.
- c) Baserri bateko eranskina botatzea.
- d) Erabilera publikoko eraikin baten teilatu-hegala handitzea.

3.- 100 metro zabaleko polizia-eremuan, ibilgutik horizontalean neurtuta, EZ dago araudi-arrazoirik administrazio hidraulikoak jarduketa edo erabilera hauetako bat izapidetu behar izateko:

- a) Lur naturalaren hondeaketa.
- b) Legarren erauzketa.
- c) Ibaien eta erreken LPSean hirigintza-osagaien adierazitako tartetatik kanpo uholde-arriskurik gabeko eremuan eraikin baten fatxada eta teilatua birgaitzea.
- d) Uholde-arriskuko eremuan uraldi-erregimeneko korrontearentzat oztopo izan daitekeen edozein jarduketa.

4.- Toki hauetako bat ez dago Ramsar Hitzarmenean sartuta. Zein da?

- a) Guardiako urmaelak.
- b) Txingudiko badia.
- c) Lea ibaiaren estuarioa.
- d) Urdaibai.

5.- Landa-lurzoruko oinarrizko egoeran dauden lurzoruetan lehentasunezko fluxu-eremuko lurzorurako Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak ezarritako mugak kontuan hartuta, oro har, baieztapen hauetako bat EZ da egia. Zein da?

- a) Kanpatze jakin batzuk baimenduko dira, baldintza batzuk beteta.
- b) Ez dira onartuko eraikin berriak.
- c) Ez dira onartuko lursailaren gaur egungo sestra aldatu eta urak husteko gaitasuna nabarmen murriztuko luketen betelanak.
- d) Ez dira onartuko Abeltzaintza Ustiatzearen Erregistroan sartuta egon beharko luketen granjak eta animalia-haztegiak.

6.- Jabari publiko hidraulikoan motorrik gabeko ontzien nabigazioari dagokionez, zein da erantzun zuzena?

- a) Dagokion erantzukizunpeko adierazpena URAn izapidetu beharko da Euskal Herriko barne-arroen kasuan, eta Konfederazioetan erkidego barneko arroen kasuan.
- b) Tamaina eta ezaugarrien arabera bainurako osagarritzat jotzen diren flotazio-baliabideak erabiltzeko, erantzukizunpeko adierazpena egin beharko da.
- c) Nabigatzeko erantzukizunpeko adierazpenak aurkezten dituztenen erantzukizuna da ontziek indarreko legeetan ezarritakoa betetzea, honako alderdi hauei dagokienez: ontzien egonkortasuna, eduki behar dituzten segurtasun-elementuak, eta ontziak nahiz elementu horiek egoera onean edukitzea.
- d) Ontziak matrikulatzea nahitaezkoa da kasu guztietan, bai eta kirol probetan ere.

7.- Itsas-lehorreko babes-zortasuneko eremuko debekuei dagokionez, oro har, hauetako kasu bat EZ dago debekatuta. Adierazi zein:

- a) Goi-tentsioko aireko linea elektrikoak.
- b) Kanpatzeak eta instalazio desmontagarriak dituzten kanpamendu edo kanpinak, behar bezala baimendutakoak.
- c) Herriarteko garraio-bideak eraikitzea edo aldatzea, horien ibilbidea babes-zortasuneko eremuarekiko paraleloa bada
- d) Egoitza edo bizileku gisa erabiltzeko eraikinak, ostatu-erabilerako eraikinak barne, ustiapen-araubidea edozein dela ere.

8.- Uraren Agentziaren eginkizunei dagokionez, erantzun hauetako bat EZ da zuzena. Zein da?

- a) Erkidegoen arteko arroen Estatuko Plangintza Hidrologikoan parte hartzea, beren araudi erregulatzaillearen arabera.
- b) Okupazio-kanona, uraren kanona eta isurketak kontrolatzeko kanonak kudeatzea, likidatzea, biltzea eta ikuskatzea.
- c) Interes orokorreko obra hidraulikoak.
- d) Jabari publiko hidraulikoa babesteko zereginak amaitzea, bereziki administrazioaren emakida eta baimenak ematea eta jabari publiko hidraulikoaren araudiarekin bat ez datorren arau-hausterik gertatzen ote den zaindu eta ikuskatu eta, halakorik bada, dagozkion zehapenak ezartzea.

9.- Uraren Euskal Agentziaren Estatutuen arabera, jarraian zehaztutako eginkizunetatik bat EZ dagokio Jabari Publikoa Kudeatzeko Zuzendaritzari. Zein da?.

- a) Uraren Erregistroa eta Babestutako Guneen erregistroa antolatu eta kudeatzeko lanak egitea.
- b) Uraren alorreko administrazio-emakidei buruzko txostenak egitea, erkidego barruan, erkidego artean eta itsasbazterrean.
- c) Dagokienean, ur kontinentalen, aprobeixamenduen eta obra hidraulikoen alorreko tasa eta kanonen zenbatekoaren proposamena lantzea.
- d) Antolamendurako plan xehatuei hasierako onespina eman ondoren, horien gaineko txosten lotesleen proposamenak egitea.

10.- Plan Hidrologikoen berrikusketa osoa eta aldizkakoa, zenbatean behin egiten da, oro har?

- a) Bost urterik behin
- b) Sei urterik behin.
- c) Zortzi urterik behin.
- d) Hamar urterik behin.

11.- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudia kontuan hartuta, landa eremuko lehentasunezko fluxu-eremuan jarduketa bat egiteko, hurrengo jarduketetako bat bakarrik baimendu daiteke. Zein da?

- a) Basotik ateratako zurezko enborren metatzea.
- b) Aurretik dagoen bizitegi-erabilerako eraikina konpontzea, baldintza jakin batzuk betetzen baditu.
- c) Negutegi bat muntatzea, baldintza jakin batzuk betetzen baditu
- d) Betelan bat, betiere azterlan hidraulikoarekin badator eta 10 urteko errepikatze-denboratik kanpo badago.

12.- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudia kontuan hartuta, landa-lurzoruaren oinarrizko egoerako lursailetan eta lehentasunezko fluxu-eremutik kanpoko uholde-arriskuko eremuan egiteko jarduketei dagokionez, hauetako bat bakarrik baimendu daiteke. Zein da?

- a) Negutegiak 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremuetan.
- b) Iragazkorak ez diren itxiturak eta hesiak, hala nola, edozein motako fabrika-hormarekin egindako itxiturak 100 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremuan.
- c) Ibilgailuentzako lurgaineko aparkaleku-instalazioak, eta sestrapeko garajeak eraikinen etxabeetan.
- d) Kanpaldiak 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko eremuetan.

13.- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoaren araudiari dagokionez, baieztapen hauetako bat EZ da egia. Zein da?

- a) Lehentasunezko fluxu-eremuan, polizia-eremutik kanpo, polizia-eremuaren barruan egonez gero bete behar diren muga berberak bete behar dira.
- b) Lehentasunezko fluxu-eremutik kanpoko uholde-arriskuko eremuan, eta polizia-eremutik kanpo, ez dira nahitaez bete behar polizia-eremuan bete behar diren muga berberak.
- c) Jabari publiko hidraulikoaren polizia-eremutik kanpo dagoen uholde-arriskuko eremuan erabilera eta jarduketa desberdinak baimendu behar dituzten lurralde-antolamendu eta hirigintza arloan eskumena duten administrazioei dagozkie Plan Hidrologikoak ezarritako mugak betetzen direla zaintzea.
- d) Itsaso eta lehorraren arteko jabari publiko hidraulikoaren babes-zortasuneko eremutik kanpo dagoen uholde-arriskuko eremuan erabilera eta jarduketa desberdinak baimendu behar dituzten lurralde-antolamendu eta hirigintza arloan eskumena duten administrazioei dagozkie Plan Hidrologikoak ezarritako mugak betetzen direla zaintzea.

14.- Ebroko Plan Hidrologikoaren araudian aurreikusita dago zenbait jarduketa gauzatzea erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuta. Jarraian adierazitako jarduketetako bat EZ dago aurreikusitakoen artean. Zein da?

- a) Ibilguak hustubide gisa duen berezko gaitasuna txikitzen duten zuhaitzak inaustea eta hildako zuhaitzak kentzea.
- b) Udalek hiriko eta hiri-inguruko parkeetan egin beharreko jarduketak.
- c) Bide eta errepideen zoru-konponketak, sestra aldatu gabe eta okupazio-azalera handitu gabe.
- d) Ibilgua oztopatzen duten korronteak arrastatutako elementuak kentzea, eta, bereziki, ibilguaren gainean eraikitako pasabideetan.

15.- Ebroko Plan Hidrologikoaren araudiaren arabera, landaketei dagokienez, jarraian zehaztutako kasuetako bat EZ da zuzena. Zein da?

- a) Ibaiertzetako landaketa-baimenetan, bost eta hogeit hamar metro arteko zabalerako zerrenda bat gordeko da bertako espeziarentzat, ibilgutik gertueneko zatiaren luzera osoan.
- b) Oro har eta berariazko baimena ematen ez bada, ezingo da ongarritze lanik egin ibaiertzetan landatutako zuhaitzetan.
- c) Ibaiertzetako landaketen kasuan, titularrak aurretik dauden okupazioak eta landaketak mantendu ahal izango ditu baldin eta korrante-erregimenarentzat oztopo ez badira.
- d) Zuhaitz-landaketetan, ibar-basoak eta zuhaitz-landaketak sustatuko dira ibaiertzetan polizia-eremuaren barruan.

16.- Uholde Arriskua Kudeatzeko Planak. Zein da erantzun zuzena?

- a) Autonomia-erkidego bakoitzaren esparruari dagozkio.
- b) Euskadin bi daude: Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdekoak.
- c) Haien lurralde-eremua eta plan hidrologikoena bat datoz.
- d) Zuzenak dira b) eta c) erantzunak.

17.- Zertan datza ibaiertzeko zurezko egitura biziaren teknikak (*krainer*)?

- a) Luzetarako defentsa da, harri-blokeekin egindakoa.
- b) Grabitate-horma bat da, zurezko enborrez osatutako egitura zelular batek eta landare biziek osatua.
- c) Zeharkako obra bat korrontearen norabidearekiko.
- d) Ibaiaren ertza estaltzea, landaretza hedatzeko gaitasuna duten hagak landatuz.

18.- Bioingeniaritzako teknikei dagokionez, hauetako bat ez dago haren helburuen artean. Zein da?

- a) Uraren Esparru Zuzentarauak ezarritako betekizunak betetzea.
- b) Ibai batek bere erresilientzia handitzea lortzea perturbazio naturalen edo antropikoen aurrean.
- c) Paisaiaren ikuspuntutik, ibaiaren eta ibaiertzen edertasuna eta ebokazio-gaitasuna berreskuratzea
- d) Urbazterreko espezieen zuloak eta habiak urez betetzea saihestea.

19.- Uholdeek kalteak eragiteko arriskurik ez dagoenean, bioingeniaritzako tekniken helburua da landarediak honako hau bermatzea:

- a) Uraren energia areagotuko dela.
- b) Lurzorua finkatu eta egituratuko dela sustraiaren garapen egokiaren bitartez
- c) Ur-masa itzaleztatuko duela, temperatura altuagoa eta landare inbaditzaileen garapenaren kontrola bermatuz.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

20.- Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua honako kasu hauetan egin behar da:

- a) Ebaluazioa behar duten planen eta programen kasuan, Natura 2000 Sareko guneei eragiten badie.
- b) Ingurumen-ebaluazio estrategikoa behar duten planen eta programen kasuan, udalerrri mailan azalera txikiko eremuen erabilera ezartzen badute.
- c) Uraren Euskal Agentziak sustatutako planen eta programen kasuan.
- d) Aurreko baieztapen guztiak okerrak dira.

21.- Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen arabera, hurrengo definizioetako bat EZ da zuzena. Zein da?

- a) Inpaktu edo ondorio adierazgarria da natura-balio baten alterazio iraunkorra edo iraupen luzekoa.
- b) Ingurumen-organoa da plan edo programa bat ezarri edo onartzeko eskumena duen administrazio publikoko organoa.
- c) Ingurumen-txosten estrategikoa, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren ondorioetarako, ingurumen-organoaren nahitaezko txosten erabakigarria da, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren azken emaitza dena.
- d) Ingurumen-adierazpen estrategikoa da ingurumen-organoaren nahitaezko txosten erabakigarria, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azken emaitza dena.

22.- Noiz preskribatzen da uren arloko arau-hausteak zehatzeko ahala?

- a) Hamabi hilabetera Euskal Autonomia Erkidegoko Mediterraneoko arroen kasuan.
- b) Sei hilabetera erkidego barruko arau-hauste arinen kasuan.
- c) Hiru urtera erkidego barruko eremuko arau-hauste larrien kasuan.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

23.- Antolamendu xehatuaren txostenak izapidetzeari dagokionez, baieztapen hauetako bat EZ da zuzena. Zein da?

- a) URAk bi hilabeteko epean egin behar du bere txostena.
- b) Konfederazioek txosten ez loteslea eman behar dute erkidego arteko arroen kasuan.
- c) Eskari berriei erantzuteko beharrezkoak diren ur-baliabideen berri eman behar da.
- d) Kosta-administrazioak, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren mugaketari eta babesari buruz informatu behar du, hala dagokionean.

24.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroei dagokionez, baieztapen hauetako bat EZ da zuzena. Zein da?

- a) Administrazio publikoak eta partikularrak lotesten dituzte.
- b) Hamar urtera berrikusi behar dira, oro har.
- c) Antolamenduko eta espazioaren erabilerako gidalerro lotesleak eta gomendio mailako gidalerroak bereizi egiten dira.
- d) Eraginkortasun zuzeneko eta eraginkortasun zeharkako gidalerroak bereizi egiten dira.

25.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroei dagokionez, uren arloan bildutako gidalerroen artean EZ dago hauetako bat. Zein da?

- a) Ur-eskariak behar bezala asetzeko behar adinako baliabideak badaudela aurreikusi behar da hirigintzako aurreikuspenetan.
- b) Hiri-berroneratzeko eta -birmoldaketarako eragiketetan, estaldurak eta bideratze gogorrak dituzten ibai-eremuak leheneratzea.
- c) Hirigintza-garapen berriak dituzten landa-ertzetan uholde-arriskuko eremuaren okupazioa saihestu beharko du hirigintzako plangintzak, eta, ezinezkoa balitz, lehentasunezko fluxu-eremutik abiatuta kokatuko dira.
- d) Hirigintzako aurreikuspenetan nahikoa eta egokia den saneamendu- eta -arazketa azpiegitura aurreikusi behar da.

26.- EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialei dagokienez, baieztapen hauetako bat okerra da. Zein da?

- a) LPS honen aplikazio-eremua, Euskal Autonomia Erkidegoko Kantauriko eta Mediterraneoko isurialdeko ur-ibilgu, urtegi, laku eta urmaelen alde banatan kokatutako 100 metroko zabalerako zerrenden multzoak osatzen du.
- b) Erreka esaten zaio 1 km² eta 10 km² arteko isuri-arroa duen ur-ibilgu orori.
- c) Ibaiertzak eta errekaertzak zonakatzeko, batez ere, ingurumen-aldagaia, aldagai hidraulikoa eta hirigintza-aldagaia hartuko dira oinarritzat.
- d) Udal-plangintzak, Lurralde Plan Sektorialean definitutako irispideak jaso beharko ditu ibaien eta erreken ibilguen alde banatan.

27.- EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialen Araudi Orokorraren C apartatuari dagokionez, baieztapen hauetatik bat bakarrik da zuzena. Zein da?

- a) Hornidurarako urtegiak, lakuak eta urmaelak, eta ur hartuneak babesteko araudirik ez da aurreikusten.
- b) Lurzoru urbanizagarrian edo urbanizatzeko gaitzat sailkatutako lurzoruan, hornidurako urtegiekiko edo laku eta urmaelekiko mugakidean, eraikuntza bereizteko udal-plangintzak gutxienez 20 metroko babes-zerrenda ezarriko du isurialde mediterraneoan, eta 30 metrokoa isurialde kantauriarrean.
- c) Kultura-intereseko zubi jakin batzuk babesten dira.
- d) Ibilguekin muga egiten duten lurpeko azpiegitura linealak, hala nola kolektoreak, ur-eroanbideak, gasbideak edo telekomunikazio-sareak, eta abar, Uraren Legearen arabera arautzen dira soilik, eta ez Lurralde Planaren arabera.

28.- EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean, osagai hidraulikoaren arabera araudi espezifikoaren E apartatuari dagokionez, baieztapen hauetako bat EZ da egia. Zein da?

- a) Oro har, bideratze-lana diseinatuko da hirigunea lehentasunezko fluxu-eremutik kanpo gera dadin eta, ahal bada, 100 urteko errepika-denborako uholde-arriskuko zonatik kanpo.
- b) Arriskua Kudeatzeko Planak onartu ondoren, baimenerako txosten eta ebazpen guztiek bateragarriak izango dira plan haietan jasotako zehaztapenekin.
- c) Uholde-arriskuko eremuetan, lurzoruaren erabileraren mugei dagokienez, etorkizuneko uholde arriskua hartuko da kontuan, Arriskua Kudeatzeko Planak oinarri hartuta.
- d) Ez da onartzen bideratze-lan berririk egitea, landa-lurzoruko hainbat eremutako uholde arriskua murrizteko helburu hutsez.

29.- EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean, osagai hidraulikoaren arabera araudi espezifikoaren E apartatuari dagokionez, jarraian zehaztutako jarduketa edo erabileretako bat lehentasunezko fluxu-eremuaren barruan egin daiteke landa-eremuan. Zein da?

- a) Eraikin berriak.
- b) Ukuiluratu gabeko abeltzaintza-erabilera.
- c) Negutegiak.
- d) Lurgainekoak ez diren ibilgailuen aparkalekuak.

30.- Kantauriko eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoekin, Euskal Autonomia Erkidegoarekin eta Uraren Euskal Agentziarekin sinatutako lankidetzahitzarmenean ez dago jasota gomendio hauetako bat. Zein da?

- a) Isurketa-baimenak izapidetzea, ebazpen-proposamenera heldu arte.
- b) Nabigatzeko erantzukizunpeko adierazpenak izapidetzea.
- c) Aprobetxamenduen zehapen-espedienteak izapidetzea, ebazpen-proposamenera heldu arte.
- d) Jabari publiko hidraulikoaren polizia-lanak eta obren, isurketen eta aprobetxamenduen zaintza- eta kontrol-lanak.

31.- Kantauriko eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoekin, Euskal Autonomia Erkidegoarekin eta Uraren Euskal Agentziarekin sinatutako lankidetzahitzarmenean, Gomendioa eta Administrazioen arteko Harremanak gidatzen dituzten printzipioen artean, ez dago jarraian zehaztuetako bat. Zein da?

- a) Uraren Euskal Agentzia herritarrentzako leihatila bakarra izango dela.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen jabari publiko hidraulikoaren kudeaketa homogeneoa bermatzea, kontuan hartuta plan hidrologiko desberdinen araudi desberdinak.
- c) Uraren Euskal Agentziak kanonak likidatzeko erabilitako datuak eman behar dituela.
- d) Estatuko Administrazioak esleitutako aprobetxamenduen gaineko informazio eguneratua emango duela.

32.- Kantauriko eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoekin, Euskal Autonomia Erkidegoarekin eta Uraren Euskal Agentziarekin sinatutako lankidetzahitzarmena garatzeko, obren baimenak izapidetzeko gidalerroetan zer ez dago aurreikusita?

- a) URAk artxibatu behar dituela espedientea eta jatorrizko dokumentazioa.
- b) URAk jakinaraziko diola eskatzaileari espedienteari hasiera eman zaiola.
- c) URAk Konfederaziora bidali behar duela eskatzaileari ebazpena jakinarazi izanaren agiria.
- d) URAk sustatzaileari jakinarazi behar diola ingurumen-izapideak bete behar dituela, eta ingurumen-dokumentu eskatu behar diola.

33.- Kantauriko eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoekin, Euskal Autonomia Erkidegoarekin eta Uraren Euskal Agentziarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmena garatzeko gidalerroetan zer ez dago aurreikusita?

- a) URAk egin behar duela txosten teknikoa, zehapen-prozedura hastea, edo ez, proposatzen duena, aprobetxamendu irregularren inguruan gerta daitezkeen arau-hauste kasuetan.
- b) URAk esleitu behar dituela urtegiak eta ibaietan nabigatzeko matrikulak.
- c) URAk egin behar dituela aprobetxamenduen ikuskapenak.
- d) URAk egin behar dituela ikuskapen-bisitak, hertsapen-isunetarako.

34.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen arabera, administrazio publikoetako egintza hauetatik, zein ez da egintza erabat deuseza?

- a) Ezinezko edukia duen egintza.
- b) Ordenamendu juridikoaren edozein arau hausten duen egintza.
- c) Gaietatik edo lurraldeetatik organo nabarmen eskumengaberen batek ematen duen egintza.
- d) Aurreko erantzunetako bakar bat ere ez da zuzena.

35.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera, administrazio-klausula zehatzen pleguei dagokionez, zein da baieztapen zuzena?

- a) Gastua baimendu aurretik edo baimentzearekin batera onartu behar dira, baina beti kontratua lizitatu aurretik edo, lizitaziorik egon ezean, esleipena egin aurretik. Behar bezala justifikatutako edozein arrazoiengatik aldatu ahal izango dira.
- b) Gastua baimendu aurretik edo baimentzearekin batera onartu behar dira, baina beti kontratua lizitatu aurretik edo, lizitaziorik egon ezean, esleipena egin aurretik, eta akats materialak, izatezko akatsak edo akats aritmetikoak egin badira aldatu ahal izango dira bakarrik.
- c) Gastua baimendu aurretik edo baimentzearekin batera onartu behar dira, baina beti kontratua lizitatu ondoren edo, lizitaziorik egon ezean, esleipena egin aurretik, eta akats materialak, izatezko akatsak edo akats aritmetikoak egin badira aldatu ahal izango dira bakarrik.
- d) Aurreko erantzunetako bakar bat ere ez da zuzena.

ERRESERBAKO GALDERAK

36.- EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean, hirigintzako osagaiaren araberako araudi espezifikuari dagokionez, baieztapen hauetako bat bakarrik da zuzena. Zein da?

- a) Landa-eremuko ertzetako atzerapenak salbuespenik gabe aplikatuko dira esku-hartze mota edozein dela ere.
- b) Ereku garatuetako ertzetako gutxieneko atzerapenak lotesleak izango dira eraikuntza berrirako eta adierazleak izango dira lehendik dauden eraikinak kontserbatzeko, birmoldatzeko edo ordezkatzeko eragiketarako.
- c) Hirigintza-antolamendua jada finkatuta dagoen eremu garatuetako ertzetan, zortasun-eremua ez da nahitaez errespetatu beharko.
- d) Hirigintza-garapen berriak hartzeko ahalmena duten eremuetako ertzetan, urbanizaziorako planteatuko diren gutxieneko atzerapenak ez dira hiri-eremu garatuetako ertzetarakoak bezain zorrotzak izango.

37.- Lehenetasunezko fluxu-eremuaren kontzeptuari dagokionez, zein da erantzun zuzena?

- a) Lehenetasunezko fluxu-eremua da huste biziko bideak eta 500 urteko errepikatzen borako uraldiak pertsoneri eta ondasunei kalte larriak eragingo lieken eremuak batuta osatzen dutena. Kanpoko muga bi eremu horien inguratzaileak mugatzen du.
- b) Pertsoneri eta ondasunei kalte larriak eragin diezazkietela ulertuko da, uraldietan baldintza hidraulikoek irizpide hauek guzti-guztiak betetzen baldin badituzte:
 - a. Gutxienez 1 metroko sakonera.
 - b. Gutxienez 1m/s abiadura.
 - c. Aldagai bi horien produktua gutxienez 0,5 m²/s-koa.
- c) Lehenetasunezko fluxu-eremua mugatzeko informazio historiko eta geomorfologiko guztia erabiliko da.
- d) 100 urteko uraldiaren sakonera 0,7 metrokoa bada, lehenetasunezko fluxu-eremua gaude.

38.- Lurzoru urbanizatuko oinarritzko egoerako lurzoruetan lehentasunezko fluxu-eremuko lurzoruaren erabilerei buruz Jabari Publiko Hidraulikoak adierazten dituen mugak kontuan hartuta, zein da erantzun zuzena?

- a) Lanak hasi aurretik, sustatzaileak Jabetza Erregistroaren ziurtagiria izan beharko du, eta ziurtagiri horretan, eraikina lehentasunezko fluxu-eremu batean dagoela adierazten duen erregistro-oharra dagoela egiaztatuko da.
- b) Jarduketetan bete beharreko eskakizunetako bat da ingurune hurbilean uretan behera uholde-arriskua 15 cm baino gutxiago igotzea.
- c) Ezingo da, inolaz ere, garajerik edo sotorik egin.
- d) Behar bezala justifikatutako kasuetan, ikastetxe edo osasun-zentro berriak eraiki ahal izango dira, baina, betiere, Babes Zibilaren oniritzia izanez gero.

39.- Itsas-lehorreko babes-zortasuneko eremuari buruz, zein da erantzun zuzena?

- a) Babes-zortasuna ezingo da handitu, baina bai gutxienez 6 metroko zabalera arte murriztu.
- b) Eremu hori murrizteko, berariazko baimena eman behar du Estatuko Administrazio Orokorrak, eta ibaiertzetan baino ezingo da murriztu, itsasaldien eraginpeko tokiraino, hain zuzen.
- c) Babes-zortasunaren eraginpeko eremuko lur-sailetan laboreak eta landaketak egin ahal izango dira, baimenaren beharrik gabe.
- d) Zerrenda horretako hondakin-uren kolektoreak ezin izango dira konpondu.

40.- Itsas-lehorreko babes-zortasuneko eremuko jarduketei dagokienez, oro har, zein da erantzun zuzena?

- a) Itxiturak erabat daude debekatuta.
- b) Zuhaitzak botatzea erabat dago debekatuta.
- c) Bide-zortasuneko eremua libre geratu beharko da.
- d) Lubetak eta lur-erauzketak erabat daude debekatuta.